


JOAN INAZIO GOIKOETXEA OLAONDO “Gaztelu” (1908-1983)

Aurtengo Errege egunez hil zen Donostian Joan Inazio Goikoetxea Olaondo jauna. Euskaltzaindiko urgazlea, gure artean “Gaztelu” bezala ezagunago zitzaigun euskal idazle jatorra.

Bereziki, olerkari bezala nabarmendu zen Gaztelu. Gai horren barnean, metri-kaz gainera, azentuaren doinuak ikertu zituen eta agindu zigun igazko ekainean Azkoitin egin behar genituen batzar haietarako bere iker lanen ondoriozko txosten bat aurkeztea, baina ordurako makalik zebilen gure gizona eta ez zuen izan harako adorerik. Tamalez, uste dugu (nonbait idatzirik utzi ez baditu) bere gorputzarekin hobiratu dituela guretzako hain jakingarri ziren ikerketak.

Gipuzkoako Gaztelun sortua zen 1908. urteko maiatzaren 5ean eta Kaputxino ordenan osatu zituen bere ikastaroak, Altsasu, Hondarribia, Lizarra eta Iruñean. 1934an hasi zen bere olerkiak *Yakintza* zeritzan aldizkarian argitaratzen. Baina, gerra zitalak barreiatu zituztenen artekoa genuen. Argentinara jo zuen eta han, apez bihurturik, baita ere aritu zen euskara irakasle eta Buenos Aires-ko *Euzko-Deia* eta Guatemala-ko *Euzko-gogoan* idazten. 1958an itzuli zenetik hemengo *Zeruko Argia*, *Egan* eta *Oleriti*-n idazten jarraitu zuen.



Gure herriaren nortasunez Axularren esaldi hura hartu zuen beretzat: "Mihian da ezagun nor den batbedea", eta honi erantzunez bere obrarik nagusienak liburuetan bilduak daude: Fray Luis de León eta San Juan de la Cruz-en olerkiak euskarara itzuli zituen *Musika ixilla* (1962) deritzan liburuan argitaratzeko, Orixe zenaren hitzaurre aberats batekin eta euskal metrikaz Gaztelu berak ezarri zion eraskinakin. Hotsezko azentuaz zituen zenbait teoria hor azaldu zituen. Bestalde, Bernardo Estornes Lasaren eragintzaz eta zuzendaritzapean Auñamendi Argitaletxeak emandako *Español-Vasco* (1965-1975) hiztegiaren antolaketa eta idazmoldea Gazteluri zor zaio. Lastima da sei tomo tipitan A letratik C-ra artekoa baizik ez dela argitaratu. Merezi luke Gazteluk egina utzi zuen guzia argitaratzea, hain taxuz bururatzen ari zen lana denez. Hala ere, nere uste apalean, Gazteluk olerkaritzan agertu zuen bere nortasunik handiena. Eta, horretan, *Oleri* aldizkarian argitaratu zituenez gainera oso gogoan edukitzekoak dira 1970 eta 1971. urteetan irabazi zituen Irun sariak, geroago liburuetan argitaratuko zirenak: *Gauean oihu* (1972) eta *Biziaren erroetan* (1972). Lehenengokoaren gaia Vietnam-eko gudu zitalaren eraginez zuzenaren gogoetazkoak eta bigarrena berekiko gogoetak izadiaren eta gizartearen aurrez-aurre.

Guti irakurtzen den herrian nekeza da literaturaren zabalkundea eta Gaztelu ere horregatik ez da hain ezaguna, zeren bere merituz entzute handiagoa merezi bai zuen. Horregatik, bere olerkietan gizon etsipenduaren minberatasuna nabari bada, ezta harritzekoa. Baina, inork inoiz ukatuko ez diona, zera da, bere herri eta herritarren alderako leialtasuna, hizkuntza jatorraren bidez txukun eta sentibera agertua.

J. S. M.